



"LEHEN HOLA, GAUR HALA, GERO EZ JAKIN NOLA"

LEITZA

HISTORIA · ISTORIOAK · LURRA · JENDEA





LEITZA

Historia, istorioak, lurra, jendea...

“Lehen hola, orain hala, gero ez jakin nola.”

Txiki ikusten da Leitza munduko mapan, txiki leitzarron historia eta istorioak planetako kontakizunean. Baina begirada apaldu eta arreta bertakoan jarriz gero, istorioz, gertakizunez, pasadizoz, bizipenez eta irudiz ederki jositako kontakizuna izanen dugu eskura, hurbilekoa, interesgarria batzuetan, bitxia hainbatetan, harrigarria askotan...

Jakin-min mutur bat izatea eta galdetzen hastea nahikoa da kontakizun horren jabe egiten hasteko. Galdetu aitona- amonei, galdetu gurasoei, auzoari, lagunari, herriko jakintsuari... edo galdetu liburuei, aldizkariari, artxiboei nahiz agiri zaharrei. Makina bat kontu agertuko zaizkizu, zure herria hobeki ezagutzen lagunduko dizutenak, bizi zaren herri hori, edo bertan bizi gabe ere estimatzen duzun hori hain zuzen ere.

Aldizkari honek ezinen du zure jakin-min osoa ase, ez dizkizu herriaz ikas zenitzakeen guztiak hona ekarriko. Zipritin batzuk bai, ordea, zure jakiteko gose hori pizteko itxaropenarekin ekarriak. Leiho txiki mordoxka bat irekiko ditugu aldizkari honetan, nahi duenak leiho txiki horietatik begira dezan eta, ikusiko duena gustuko izanez gero, ikusitako eta ikasitako horretan gehiago sakon dezan.

Plazaola trenbidearen aipamena eginen dizugu, konparaziora, lerro gutxi batzuetan. Edo Leitzak garai batean izan zuen do-rearena. Horrek kitzikatzen bazaitu, beti izanen duzu han eta hemen dauden informazio-iturrietan —pertsonak, paperak eta sarea, gehienbat— sakontzen eta gehiago ikasten jarraitzeko aukera.

Aldizkari hau osatzean Leitza buruzko hainbat jakingarri laburrean ekartzen saiatu gara. “Jakin beharko genituzkeen” hainbat kontu eman ditugu, nolabait esateko, herriari buruzko argazki panoramiko bat egiteko. Askoz gehiago ere badira, noski, eta hemen aipatu diren horietan ere askoz gehiago sakon daiteke. Ziur gaude, hala ere, hona ekarritakoarekin denok ikasiko dugula zer edo zer, eta gehiago jakin nahia ere esnatuko dela gure barrenean. Hala izanen delakoan, hurrengo orrialdeetan duzun edukietan murgiltzera gonbidatzen eta animatzen zaitugu.

Aurkibidea

Istorioz jositako historia	5
Lurra, jendea, lana...	10
Euskara, Leitzako hizkuntza	14
Kultura eta kirola	17
Ospakizunak eta ohiturak	21
Herri bat auzolanean	23
Pertsonaiak eta herritarrak	28
Gehiago jakiteko	31



Leitzako lurretako lehen biztanleak

Mendibileko trikuharria ikusgarria eta oso nabarmena da. Ez da, jakina, Leitzako megalito bakarra. Aski ezaguna da, besteak beste, Urdolako harrespila, duela 4000 urte ingurukoa. Horiez gain tumulu, trikuharri eta kromleix edo mairu-baratza ugari aurkitu da Leitzan, eta horietako gehienak markatuta eta seinaleztatuta daude. Artzainen kulturaren adierazgarri dira megalito horiek, eta gure lurretan gizakia gutxienez orain dela 6.000 urte bizi zela erakusten digute. *(Irudia: Miel Mari Elosegí)*

Leitzako agiririk zaharrena

1421. urtean gaztelauk herria erre zutenean udal artxibategia ere erre zen eta, ondorioz, ez daukagu hori baino lehenagoko dokumenturik. Lehendabiziko agiriak, beraz, XVI. mendekoak dira. Horretaz gain, kanpoko artxiboetan ere Leitzan ia ez da agirieta agertzen. Zergatik? Goretzi Calderonek Leitzako Udalarentzat egindako lan batean honela azaltzen da: "Iruñeko katedralak eta Leireko, Iratxe, Irantzuko, San Juan de la Peñako eta Donemiliagako monasterioek, garai hartako erdigune erlijiosoak zirenek eta botere politikoari estuki lotuta zeudenek, ez zuten apenas jabetzarik mendialde osoan, eta Leitzan ere ez zuten". Horrek azalduko luke, neurri batean behintzat, agiri zaharrak hain eskasak izatea.

Leitza izenaren lehendabiziko aipamen idatzia

Leitza idatziz aipatzen den lehendabiziko agiria Antso Nagusia Iruñeko Erregeren garaikoa da (1004-1035). 1023. urtekoa da, hain zuzen ere. Gaur egun gordetzen den agiri honen kopia zaharrena XIII. mendekoa da, eta Iruñeko katedraleko artxiboan dago. Bertan ikus daitekeenez, dokumentu honek bi zati desberdin dauzka. Lehenengoan Iruñeko katedralaren jabeagoak erroldatzen dira, eta bigarrean Iruñeko diozesiaren mugak deskribatzen dira. Azken zati honetan aipatzen dira Leitza eta Areso, Belate eta Gipuzkoa arteko beste bailara batzuekin batera. Horren arabera Leitza diozesiaren parte izango zen Antso Nagusiaren garaian, legez behintzat. Hala ere, komeni da kontuan hartzea aipaturiko agiriaren egiazkotasuna zalantzarria dela. Baliteke dokumentuaren zati batzuk benetakoak izatea, baina litekeena da beste batzuk gerora faltsutuak izatea, XI. mende hasieran diozesien mugen deskribapen zehatzak egitea ez baitzen oso arrunta. Agiri horretaz gain, 1192. urtekoa da Leitzaren aipamena egiten duen lehendabiziko testua. Urte horretan, hain zuzen, Antso Jakintsua erregeak Leitzari eta Aresori forua eman zien.

STORIOZ JOSITAKO HISTORIA



Leitza. Herriaren izena

Leitzaren inguruko lehendabiziko aipamenetan herriaren izena Aresorekin batera agertzen da. 1192. urtean, hain zuzen ere, Leitza et Aresso izendapena agertzen da, eta 1268. urtean, berriz, Leyçarasso. Aurrerago, XVI. mendean, Leyça forma erabiliko zen herriaren izena idazteko. XVIII. mendean gaztelania idatzitik “ç” zeinua desagertu zenean, Leiza erabiltzen hasi ziren herriaren izena hizkuntza horretan emateko. Ahozko usarioan Leitze da oso aspalditik erabili den forma eta gaur egun ere gehienez erabiltzen dena bertan eta inguruan. Leitze aldaera idatzia “Atte Asteteren dotriñe/Euscaraz Leitcerako paratue” izeneko dokumentuan agertu zen lehendabiziko aldiz, XIX. mendean. Gaur egun Leitza da herriaren ofiziala eta normalean idatziz erabiltzen den forma.

Leitzako armaria

Baezako (Jaen) gudua 1227. urtean gertatu zen, musulmanen aurkako gerren testuinguruan. Leitzar batzuk ere baziren han, Lope Diaz de Haro Bilboko jaunaren alde borrokatzera joanak. Laguntza hori eskertzeko, hain zuzen ere, Bilboko jaunak Bizkaiko armariaren antzekoa eman zion Leitzari, baina bi otso izan beharrean otso bakarra zeukan.

Leitzako forua

Foruak botere politikoaren eta herriko komunitatearen arteko harremanaren arauak finkatzen ditu. Foruak ez du ez herririk ez hiririk ezerezetik sortzen. Beti alde aurretik dagoen errealitate batera moldatzen da, eta aldi berean gerorako bilakaera orientatu nahi izaten du. Leitzako forua, zehazki, 1192. urtekoa da. Leitzak eta Aresok —garai hartan udalerririk bakarrik ziren— Antso VI.a Jakintsuaren eskutik jaso zuten forua. 1192 eta 1194 artean Nafarroako erregeak hamasei foru emanaldi gauzatu zituen nekazari komunitateetan, eta Leitzako eta Aresoko forua multzo honetan kokatu behar da. Foruak, besteak beste, petxak arautzen zituen. Alegia, jaunari (erregea, apezpikua, abadea edo jaun laiko bat) ordaindu beharrekoa, espezieetan edo dirutan. Ordainketarako, bestalde, bi sistema zeuden: etxe bakoitzak berea ordaintzea (Leitzan hala egiten zen), edo ordainketa komunitate osoak bere gain hartzea. Eta zergez gain foru askotan justizia ere arautzen zen. Erregeren eta haren ofizialen esku zegoen justizia eta isunak jartzea; hilketak zirela eta, esate baterako. Foruak erakusten du, bestalde, garai hartan Leitzako jarduera ekonomiko nagusia abeltzaintza zela. Jaunen aztarna ia ez da nabaritzen, eta horrek adieraziko luke komunitate sendoak zirela, eta herritarrek zirela lurraldearen kontrol erreala zutenak.

Leitzako dorrea

Gipuzkoa Nafarroako erresumaren zati zen bitartean ez zen oso beharrezkoa izanen dorreak eta gazteluak edukitzea inguruotan, baina bai 1200. urtetik aurrera, Gaztelaren mendean gelditu zirelako ondoko euskal herrialdeak, eta aurrerantzean gatazka ingurua izanen zelako. Leitzak ere izan zuen bere dorrea. Dorre horren lehendabiziko aipamena 1318ko dokumentu batekoa da. 60 gizon zituen orduan bere defentsarako. 1347an ordura artekoa utzi eta berri bat eraiki zen, oraingoan harrizkoa eta herrian bertan. Lehen-goia egurrezkoa zen, eta herritik urruti eta erreka ondoan omen zegoen. 1378an Gaztelarekin izandako gerraren ondorioz suntsitua izan zen, 1429an berriz konpondua, eta 1444. ean berriz ere suntsitua, Gaztelarekiko gerren ondorioz Areso eta Leizta txikitu zituztenean. 1460 inguruan berreraiki zuten eta 1461ean izendatu zuten azken alkaidea, Martin de Eraso. Hortik aurrera erreferentziak galdu egin ziren. Leitzako dorrea beti erregearena izan zen, eta alkaide bat —funtzionario militar bat— izendatzen zen bertako ardura bere gain har zezan. Leitzakoak, gerra garaian batez ere, defentsarako funtzioa zeukan. Laukia zen eta oso altua, 22 metro luze. Kanpoan egur-estakaz egindako hesia zeukan, putzua edo fosoa, putzua pasatzeko zubi altxagarriak, arkerak... 1461tik aurrera ez dago Erregeren gaztelurik edo etxerik gerrarako, soldaduekin-eta. Torrea izeneko etxearen aipamenak bai, hala ere. 1471an Martin Lopez de Eraso da Torreko nagusia (azkeneko alkaidea bera ote?). 1650eko dokumentu batean Leitzako Dorrea etxea aipatzen da, baita 1726ko apeoan ere. 1834ko abuztuan Torrea erre zuten, gerra karlistetan, bertako paper garrantzitsuak barne. Carlos Maria Isidro de Borbón bertan egon zen ostatu hartuta, eta baita Carlos VII.a ere II. gerra karlistan.

Herria eta etxeak behin eta berriz suntsituta

1421. urtean 14 etxe erre ziren Leitza, eta orduan hasi ziren harrizko etxeak eraikitzen. Garai batean herriko etxeak erretzea edo suntsitzea nahikoa gauza ohikoa zen. XV.mendean, izan ere, Leizta Nafarroako eta Gaztelako erreinuen arteko mugan zegoen, eta horren ondorioz bi lurralde horietako erregeen arteko borroken ondorioak nozitu zituen. Ondorioak, esate baterako, gaztelauiek herria txikitzea izan zen, 1421an eta 1429an gertatu zen bezala. Orduan, zortzi urtez 1437. urtera arte, Leizta Gaztelaren esku geratu zen. Ondoren Nafarroako erreinuan integratu zen eta 1444an herria, berriz ere, suntsitu egin zuten. Herria berpopulatzeko 40 urtez zenbait zerga ez ordaintzeko baimena eman zitzaion herritarrei.

Basaburua Txikia

Garai batean Basaburua Txikia izeneko eskualde edo bailara historiko bat egon zen, administratiboki ezagutua. 1757an Leizta Basaburua Txikia izeneko bailara historiko ho-





rrren parte izaten hasi zen. Leitzaz gainera inguruko beste herri batzuk ere biltzen zituen: hasieran Ezkurra, Labaien, Saldias eta Eratsunek osatzen zuten, gero Goizueta, Arano, Areso eta Leitza elkartuko zitzaizkien, 1757an. (Irudia: Aitor Zabaleta)

Aresoarren bandera

1860. urte aldera gertatu zen aresoarren eta leitzarren arteko istilua sonatua, Ibiurko zubian. Ihauterietan, nonbait, Erreka auzoko eskea zela-eta, Leitzako eta Aresoko gazteen artean hasarrea sortu zen, baita borroka gogorra ere. Gertakizunen ondoren bertso batzuk eta kanta bat sortu ziren, eta Aita Olazaranek ere argitaratu zituen bere garaian. Honela dio kanta horren hasierak:

*Aresoarren bandera,
ai, nolakoa ote da?
Erakustera ekarri dute
Errekaldera
Gero leitzarrak bidera
norabuenak ematera
ahal zuena arin joan zen
iragitera*

1888ko elurte handia

1888. urtea gogoan gorde dute leitzarrek, elurte ikaragarria egin baitzuen orduan. Nonbait, herrian bertan otsoaren aztarnak ikusi zireneko azkeneko aldia izan omen zen hura. Elurtearen tamainak ondorio ugari eta eragin handia izan zuen, herrian bertan, base-rietan eta aziendak nahiz animaliak zituztenengan, eta horren oroitzapenak herritarren gogoan luzaroan iraun zuen, kontakizunetan nahiz bertsoetan, esate baterako. Leitzelareko haritz handia ere elurte horrek berak bota omen zuen. (Irudia: Aitor Zabaleta)

Gerrak Leitzan

Leitzak duen kokapenaren ondorioz ez da harritzekoa gerren eragina behin eta berriz nozitu izana. Espainia eta Frantzia artean kokatuta dago, esaterako, eta bi horien arteko gerrak ugariak izan dira. Bestalde, Gipuzkoako mugan dago, eta garai batean, Gaztelak Gipuzkoa bereganatu ondoren, oso inguru gatazkatsua izan zen. Nolabaiteko kronologia laburra eginez, honakoak aipa litezke: Baezako gudan (Jaen) izan omen ziren leitzarrak 1227an; XV. mendean bereziki Nafarroa eta Gaztela arteko gatazka ugari gertatu zen gure inguru honetan, leitzarrak bete-betean harrapatu zituztenak; konbentzioko gerrak,

1792-1795etan gertatua, eta frantseslea izenekoak, 1808-1814 epean, Leiza ere harra-
patu zuten; XIX. mendeko bi gerra karlistak ere bertan izan ziren; eta XX. mendean Espa-
niako altxamendu faxista gertatu zen, eta bertan frontierik izan ez zen arren gerra horrek
ere ondorio zuzenak ekarri zizkien leitzarrei.

Biztanle kopuruaren gorabeherak XVIII. eta XIX. mendean

Leitzako biztanle kopuruak gorabeherak izan ditu historian zehar, XVIII. eta XIX. men-
dean esaterako. 1770. urtera arte Leitzak eta Aresok udalerrri bakarra osatzen zuten,
baina urte horretan bereizi egin ziren. Hori dela eta Leitzako herriak biztanleak galdu
egin zituen. Baina banaketarena ez zen biztanleak galtzeko arrazoi bakarra izan. Denbo-
ra hartan zenbait gerra piztu ziren inguruan (Konbentzioko gerra, karlistadak gero...), eta
jendea miseria gorrian bizitzea eragin zuten, biztanleriarengan galerak eraginez. Horre-
taz gain batzuek herritik joatea erabaki zuten, arrazoi desberdinak tarteko: Bizkaiko labe
garaietara lana bilatzea, Ameriketara bizimodu hobea bilatzea... Beherakada hori na-
barmena da kopuruari begiratu bat emanez gero: 1.724 biztanle ziren 1800. urtean, eta
1880. urtean 1.399ra jaitsi zen.

1936ko gerra Leitzan

1936ko gerra hasi baino lehen herrian bi familia politiko ziren nagusi, abertzaleak eta
karlistak. Leitzako karlisten artean pisu handi samarra izan zuten izenak zeuden, balez-
tenatarrak eta lizartatarrak esaterako. Leitzan gerrak ez zuen frontierik ezagutu, baina
leitzarrek gerran parte hartu zuten, bi bandoetan. Leiza hasieratik altxatuen eremuan
gelditu zenez, gerra hasi eta berehala nabaritu zen frankisten errepresioaren itzala: he-
riotza zigorrak ezarri zituzten, (gero gauzatu ez zirenak), emakumeei ilea moztzen zieten
zigor moduan, hilerrian bazen txoko bat ez-kristauak eta ez-onartuak hilobiratzeko, aber-
tzale eta ezkertiar zirenen aurkako oldarraldiak bertakoak ere ixilarazi zituen, gauzez atekak
jotzen zituzten ikara sortzeko asmoz, kuartelera jendea eraman... Giro ilun eta hitsak
urte askoz iraun zuen. Errepresioak, nolahi ere, ez zituen Leitzan beste zenbait tokitan
eragin zituen ondorioak izan, hildakorik edo fusilatutako esate baterako ez baitzen izan.



LURRA JENDEA LANA

Irudia: A. Z.



Azalerak, distantziak eta beste

Leitzako herrigunea 475 metroko altueran kokatuta dago, eta 58 Km²-ko azalera dauka. Areso, Berastegi, Beruete, Ezkurra, Goizueta, Gorriti eta Uitzu dira Leitzarekin muga egiten duten herriak, eta muga horrek 39,5 kilometro ditu. Horietako 11,2 Leizta eta Goizueta arteko mugari dagozkio. Iruñerako distantzia, bestalde, 48 kilometrokoa da. Mendi inguruaz eta herriguneaz gain bost auzo ditu herriak: Arkiskil, Erasote, Erreka, Gorritzaran eta Sakulu. Gorritzaran da horien artean azalerarik handiena duena.

Leitzako lurraldea

Inguru menditsua da Leitzako lurraldea, eta bertan goragune, mendi eta aldapa handi eta erdi-bitarteko ugari daukagu. Zenbait mendilerro ageri dira: Mandoegi-Urepel lerroa, iparraldea-hegoaldea orientaziokoa, Leitzalarreko mendien barnean; Arramia-Baztarla-Aizan- Eguzkizko muinoa lerroa, ekialde-hegoaldea orientazioa duena, eta Leitzalarreko muga egiten duena; Guratz-Axuste-Urtezar lerroa, hegoaldea-iparraldea orientaziokoa, Areso eta Leizta arteko muga egiten duena; eta Kornieta-Beordain bidea, ekialdea-mendebaldea norabidea hartzen duena, Beruete eta Ezkurrako mugetan. Mendi horien guztien artean Eguzkizko muinoa da altuena (1.082 metro). Ia altuera berekoak dira Kornieta (1.062 metro), Urepel (1.055 metro), Aizan (1.054) edo Altzegi (1.011 metro). Leitzako errekei dagokienez, batzuek Urumeara isurtzen dituzte urak, Donostian itsasoratuz, eta gainerakoek Oria ibaira, itsarora Oriotik iritsita. (Irudia: Pablo Feo)

Izaieta

Izaietan aldatu zituzten izei zuri ikusgarriak (Albies alba) 1832. urtean ekarri zituzten Iratitik. 40 metrotik gorakoak dira ale horietako batzuk. Luzeenak, hain zuzen ere, 44 metroko altuera lortu zuen. Urteak ez dira alferrik pasatzen, ezta zuhaitzentzat ere, eta gaur egun izei handi horiek gainbehera doaz. Badituzte, ordea, ondoan hazitako Douglas izeiak eta izei gorriak, eta horiek ere bikainak, altura ikaragarrikoak eta ikusgarriak izanen dira. Izei zuri txikiak ere jaio dira bertan eta horiek ere haziko dira, ingurua txukun mantenduz gero.

Aritzaundi

Aritzaundi Leitzalarreko haritz bikain bat zen, inguruan ezagutu den handiena ziur asko. Herritik 8 kilometrora kokatua, elurte batek bota zuen 1888. urtean. Aritzaundi zegoen tokian haritz gazte bat eta monolito bat daude gaur egun. Policarpo Eloseggi tolosarrak egin zizkion garai batekoari argazkiak 1897an eta 1898an. Orduan esaten zenez, bedera-

tzi pertsona behar ziren, besoak zabaldua, zuhaitz haren inguru osoa hartzeko. Horretaz gain, Leitzan badira beste zuhaitz ale ezagun batzuk ere. Soroko gaztaina, esate baterako. 1984an eroria, barrena hutsa zuen eta jendea sartzen zen. Arizko elorria, berriz, Aritz mendian kokatuta dago eta bere tamainagatik Nafarroako Monumentu Natural izendatu zuten. (Irudia: Policarpo Elozegi)

Leitzako landaredia

Leitza Nafarroako eskualde atlantiarrean dago. Kantauriar itsasotik hurbil egonik, klima epel eta euritsua du, eta 2000 mm inguru pilatzen dira urtean zehar. Mendiz inguratutako herria da eta basoek azaleraren zati handiena estaltzen dute. Zuhaitz ugariak hostogalkorrak dira, pagoak, haritzak, gaztainondoak, lizarrak, altzak eta abar. Badira kanpoko espezieen baso-landaketak ere, pinudiak, alertzediak, harizti amerikarrak eta abar, baina horiek askoz azalera txikiagoa hartzen dute. Basoez gain, leku irekietan irastorlekuak eta larreak aipa daitezke. Horiek, ordea, atzera egin dute azken urteetan baserriaren eta abeltzaintzaren gainbeheraren ondorioz. Zuhaitz ugariena pagoa da, batez ere 600 metro ingurutik gorako eremuetan. Hariztiekin, gaztainadiek eta baso-mistoekin azalera txikiagoa hartzen dute.

Leitzako fauna

Leitzako mendi, baso, eta larreetan animalien dibertsitate interesgarria dago. Ornodunetatik hasita, erreketan bi dira arrain espezie nagusiak: amuarrainak eta eskailuak. Anfibioak ere inguru hezeetan bizi dira eta baso-igel gorriak, apo arruntak, txantxikuak, uhandre palmatuak eta arrubioak ikus daitezke. Narrastietan sugandilak, musker berdeak, ziraunak, suge gorriak, gorbatadun sugeak eta eskulapio sugeak dira ugariak. Hegaztien artean, berriz, pinpinak, txantxangorriak, zozo eta birigarroak, kaxkabeltzak, okilak, zapelatzak, urubiak eta abar. Eta ugaztunen artean, saguzaharrak, basurdeak, orkatzak, katagorriak, muxarrak, lepatxuriak, azeriak eta abar aipa genitzake. Ornogabeei dagokienez, larre eta basoetan ehundaka intsektu, molusku eta abar aurki daitezke. (Irudia: Miel Mari Elozegi)

Burdinolak

Lan handia egin zuten XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan burdinolek Leitzan, batez ere itsasontzigintzarako. Plazaolako 1961ko aldizkarian esaten denez, XVI. mendean Leitzan zazpi burdinola zeuden: Urto, Sarasain, Errezuma, Astibia, Urdiñola, Eleuna (Elun) eta Ibero. XVIII. mendearen bukaeran, berriz, lau ziren lanean ari zirenak, eta 1920 aldera itxi zen azkenekoa. Aipatu ditugun horiez gain, Arangaitzakoa eta Olaberrikoa gogoratu behar dira. Burniolak jabetza partikularrekoak ziren, Urtokoa izan ezik, hura udalarena baitzen. XIX. mendean, desamortizazioarekin, estatuak subastatu egin zuen. Eta XIX. mendean, hain zuzen ere, etorri zen burdinolen gainbehera, besteak beste Bizkaian sortu ziren



fundizio modernoen eraginez. Lanean aritu zen azkeneko burdinola Olaberrikoa izan zen, Europako Lehendabiziko Gerra handira arte aritu baitzen lanean, Toledoko arma fabrikarentzat. (Irudia: Pablo Feo)

Leitzako populazioa

Leitzako populazioak bilakaera nabarmena izan du denboran zehar, espero litekeen moduan. Pixkanakakoa batzuetan, eta kolpekoa beste zenbaitetan. 1860. urtetik 1960. urtera, esaterako, Leitzako populazioa bere horretan mantendu zen. 1.679 biztanletik 1.626 biztanlera pasa zen 100 urtean, ia aldaketarik gabe, tartean gorabehera batzuk izan zituen arren (1900. urtean, esaterako, 1.426 biztanle ziren). Aldaketa handia orduantxe gertatu zen, 1960tik aurrera alegia, SARRIOk Leitzan bere lantegia ireki ondoren. Hamar urteko epean 1.626 biztanletik 2.623ra pasa zen, eta 1985. urtean 3.335 zeuzkan. 25 urtean, beraz, Leitzako populazioa bikoiztu egin zen. Goia jo zuen orduan eta geroztik joera beherakoa izan da, nahiz eta pixkanakakoa izan. Gaur egun 3.000 biztanle inguru dauzka herriak. Populazioaren hazkunde horrekin batera herria bera eta herriko bizimoduak nahiz jarduera ekonomikoa asko aldatu zen arren, eta hazkundeak kanpotik etorritako jende asko ekarri zuen arren, herria oso euskaldun mantendu da, etorritako gehienak ingurukoak zirelako seinale.

Argindarra Leitzan

XX. mendera arte argia kandlek, lastargiek, beheko suak edo kinkeek ematen zuten. Argindarra, berriz, 1905ean iritsi zen Leitzara, orduan egin baitzen lehendabiziko argindar-zentrala Goiko Errotan. "Central eléctrica San José" zentrala hain zuzen ere. Hurrengo "Electra Olaverria" izan zen, Olaberrin, eta aurrerago, gerra ondoren, auzoetan zentral txikiak sortzen hasi ziren.

Plazaola

Burdina garraiatzeko sortu zuten Plazaola trenea XX mendearen hasieran, Plazaolako meategietatik Andoainera burdina garraiatzeko. 1914an bidaiariak eramaten hasi zen, Iruñea eta Donostia lotuz, 85 kilometroko ibilbidean. 1953ko uholdeen eta autobusaren lehia gogorraren ondorioz, eta zenbait urtez zerbitzua murriztuta, azkenean 1958an trenea desagertu egin zen, paiasian arrasto nabarmena utzita. Trenea desagertu zen, ez ordea trenbidea. Azkeneko urteotan trenbidearen zati handi bat berreskuratu eta egokitu da eta natur bide gisa moldatu. (Irudia: Juan Luis Artola)



Herriko jarduera ekonomikoa

Bizirik iraunen badu, herri batek gutxieneko jarduera ekonomikoa behar du. Leitzako historian barrena jarduera horiek aldatuz joan dira, ezinbestean. Historikoki nagusi izan diren jarduerak, leitzar gehienei bizibidea eman dietenak, abeltzaintza eta nekazaritza izan dira, alde batetik, eta industria jarduerak, bestetik: meatzaritza, burdingintza (olak), ikazkintza, errotak eta batanak. Gaur egun horietako batzuk neurri batean mantentzen diren arren, papergintza alorreko industria eta zerbitzuak dira sektore garrantzitsuenak.

Baserriak

Leitzan, Areson eta Goizuetan bezala esate baterako, baserri ugari dago eta herriko bizitzaren zati garrantzitsua izan dira eta dira. Bost auzotan banatuta daude baserri guztiak: Arkiskil, Erasote, Erreka, Gorritzaran eta Sakulu. Madozen *Diccionario geográfico-estadístico-histórico 1845-1850* liburuak dioenez, 120 etxe herrigunean eta 101 baserri zeuden garai hartan, XIX. mendearen erdi aldean alegia. 2014. urtean argitaratutako Leitzako mapa egiteko garaian 107 baserriren izenak jaso dira, hau da, baserri kopurua bere horretan mantendu da. Asko aldatu da, ordea, baserriarren bizimodua eta haien jarduera ekonomikoa, gaur egun oso gutxi baitira —ez dira 10era iristen— baserri hutsetik bizi direnak. Baserri horietako askotan neurri batean ohiko jarduerari eusten zaizen arren, hau da, nekazaritzako eta abeltzaintzako jarduerari eusten zaizen arren, bizibidea ateratzeko baserritik kanpoko lana da nagusi, herrian edo herritik kanpo, eta baserrikoa jarduerari osagarri gisa eutsi zaio.

Leitzako udal artxiboko ordenantzarik zaharrenak

1545ekoa da Leitzako udal artxiboan dagoen ordenantzarik zaharrena. Gerora beste hainbat onartu zituzten, eta horietako batzuk gorde dira. 1622. urtean, esate baterako, landa eta okindegiatarako arauak ezarri zituzten, 1758. urtean mendirakoak, eta 1824. ean polizia-ordenantzak. 1892., 1911., 1916. eta 1917. urteetan udal ordenantzak onartu zituen Leitzako Udalak, eta horiekin liburuxka moduko bat argitaratu zuten. Ordenantza horietan jasotako arauen artean, besteak beste, honakoak zeuden: galerazita zegoen maldizioak botatzea eta eskean ibiltzea, baita jai egunetan lan egitea ere; lhauteetan, eguzkia sartzen zenetik hurrena atera arte ezin zen atsauretu, ezta aurpegia estali ere; tabernetan ezin zitzaizen alkoholik eman mozkorrei eta 15 urtetik beherakoei; seitik hamabi urte bitarteko haurrak eskolaratzea gurasoen ardura zen eta hala egin ezean 5 pezetako isuna jarriko zitzaizen; txertatu gabeko haurrak ez ziren eskolan onartuko eta gaitz kutsakorrek ezkututzen zituztenei isunik gogorrena jarriko zitzaizen, 25 pezetakoa hain zuzen ere. Garai hartan, eguneko 10 ordu lan eginez, 4 pezeta irabazten zituzten langile onenek.



Sarrio

Sarrio lantegia 1948an sortu zen papera merkaturatzeko enpresa gisa. Lantegiaren inaugurazioa 1961eko ekainaren 11n egin bazen ere, 1959an iritsi zen Leitzara, orduan ireki baitzen hemen papera egiteko lantegia. Paper mota ezberdinak egin izan ditu SARRIOk bere historian zehar, eta lantegiak berak ere aldaketa handiak izan ditu langile kopuruari dagokionez. Inoiz izan duen plantillarik handiena 1976. urtekoa izan zen, 1.450 langile inguru ari baitziren orduan Leitzan lanean. Hortik aurrera langile kopurua asko murriztu da, eta gaur egun ez dira 500era iristen. Hala ere, Leitzara etorri zenetik bere historia osoan izan den bezala, gaur ere herriko bizitza ekonomikoaren ardatz nagusietako bat izaten jarraitzen du.

Leitzako ikastetxeak

Leitzan hiru ikastetxe daude 2015. urtean: Itzaire haur-eskola, Erleta eskola eta Amazabal Institutua. Haur eskola eta institutua berri samarrak dira, baina eskola oso aspaldi sortu zen Leitzan, orduan beste kokapen batean. Herriko eskolaz gain, auzoetan ere izan ziren eskolak, Gorritzaranen, Erasoten eta Errekan hain zuzen ere. Kontzentrazio eskolarraren hasiera 1965. urtean kokatu behar da. Horiez gain, Mikel Deuna ikastola sortu zen 1967an Leitzan, 1990. urtera arte iraun zuena. Eta nekazari eskola bat ere egon zen Leitzan, 1964.ean sortua. Gaur egun DBH eta batxilergoa ematen dituen institutua baino lehen, lanbide heziketako ikastetxe bat egon zen Leitzan.

Leitzako euskara

Bonapartek egin zuen oraintsu arte gehien erabili den euskalkien sailkapena, baina azken urteotan Koldo Zuazok mapa hori berritu eta egokitu egin du, eta horixe da gaur egun nagusitu eta gehien zabaldu dena. Zuazoren sailkapenaren arabera Leitzako hizkera erdialdeko euskalkian kokatzen da, erdialdekoen eta hizkera nafarraren arteko zubi-lana eginez. Baditu, beraz, Euskal Herriko erdialdeko hizkeren ezaugarri batzuk, baina baita ekialderago dauden hizkera nafarrenak ere.

Euskararen ezagutza eta kaleko erabilera Leitzan

Leitzako euskaldunen kopuruari buruzko datuak Nafarroako Gobernuak egiten dituen errolda edo zentsuetatik ateratzen dira. Azkeneko datu ofiziala, Leitzan modu berezitan

aztertu zuena, 2001ekoa da. Leitzako biztanleen % 91 euskalduna dela erakusten du azterketa horrek. Kale neurketak, berriz, Leitzako euskara batzordeak egin ditu hamar aldiz, eta kalean entzuten den hizkuntza jaso da. Neurketa horien arabera kalean entzuten diren elkarrizketen % 70 inguru euskaraz izaten dira Leitzan.

Euskararen ofizialtasuna

1982ko Foruaren Hobekuntzarako Legeak ezarri zuen Nafarroan euskara ere ofiziala izanen zela lurraldearen zati batean. 1986ko euskararen legeak zehaztu zuen gero zein udalerritan izanen zen euskara ofiziala eta Leizta izan zen horietako bat. Orduz geroztik euskara hizkuntza ofiziala da Leitzan eta, beraz, gaztelaniaren pareko estatus legala dauka zuzenbidez, eta euskaraz egindako jarduera orok balio juridiko osoa du. Praktikan, herritarrek eta udalak hainbat aldiz salatu duten moduan, euskara ofiziala izan arren, herritarren hizkuntza eskubideak murriztuta eta urratuta agertzen dira askotan, batez ere udalaz kanpoko administrazioetan eta herritik kanporako eremuetan.

UEMA

UEMA (Udaleri Euskaldunen Mankomunitatea) Euskal Herriko 70 udaleri baino gehiagok osatzen dute. Euskaldunen ehunekoa % 70etik gorakoa duten udalerriak dira UEMAn guztiak, eta udalaren eta udalerraren eguneroko bizitza —publikoa nahiz pribatua— euskaraz normaltasun osoz egitea da haien guztien helburua. Baita euskararen zatitza lurgune propio eta lehentasunezko bat osatzea ere. Leitzako Udala 1993. urtean sartu zen UEMAn.

Mikel Deuna ikastola

Leitzako ikastola 1967/68 ikasturtean abiatu zen, Mikel Deuna izenarekin, 15 ikaslerekin eta andereño batekin. 1967an abiatu zen, beraz, baina andereño baten anaiaren atxiloketa zela-eta gobernadoreak itxi egin zuen, eta hala egon zen denboraldi batez. Orduko erretore Nikolas Buldainen utzitako eliz ganbaran hasi zen ikastola. Nafarroako gainerako ikastolak ez bezala, Leitzakoa patronatu baten mendean egon zen, Amazabal Patronatuaren mendean hain zuzen ere. 1971an jada 85 haur zituen ikastolak. 22 urteko ibilbidea egin ondoren, hainbat urtez legeztatzeko eta ekonomikoki bideragarri izateko zailtasunen ondoren, eta Nafarroako Gobernuaren babes faltaren ondorioz besteak beste, 1989/1990 ikasturtea izan zen Leitzako ikastolaren azkenekoa. (Irudia: Mikel Illarregi)





Leitzako eskola

Leitzako eskolak historia luzea dauka. Herrigunekoaz gain, garai batean auzoetan ere baziren eskolak. Horietan denetan irakaskuntza gaztelaniaz egiten zen, 1976. urtean euskarazko lehendabiziko taldea sortu zen arte. Urte horretan bertan, Nafarroako Hezkuntza Batzorde Nagusiaren bitartez, Leizta eta Lekunberriko ikastetxe publikoetan era esperimentalean "eskola elebidunak" jartzeko aukera eskaini zen. Orduetik aurrera euskarazko irakaskuntza pixkanaka nagusituz joan da, eta XXI. mendera iristerako D eredua, euskarazko irakaskuntza alegia, eskolako eta institutuko eredu bakarra zen. 2014-2015 ikasturtean Erleta ikastetxeak haur hezkuntza eta lehen hezkuntza osoa eskaintzen du, eta Amazabal Institutuak DBH eta Batxilergoa.

Euskara Mankomunitatea eta euskara zerbitzua

Leitzako euskara zerbitzua 1990. urtean sortu zen. Eskualdeko zerbitzua izan zen hasiera-hasieratik, eta Leizta, Arano, Goizueta eta Aresoz gainera, eskualdeko hiru teknikariek (bi ziren hasieran), Larraun-Lekunberri-Araitx-Betelu-Imotz-Basaburua-Ultzama eskualdea hartzen zuten. Leitzako Udalak kudeatzen zuen zerbitzua hasieran, udal guztien izenean, eta 1998an Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea sortu zen. Gaur egun erakunde hori da euskararen gaia kudeatzeko udalak bildu eta ordezkatzeko dituen jardueren bitartez euskararen ezagutza, erabilera eta aldeko jarrerak sustatzen eta indartzen lan egiten du, hainbat alorretan: komunikazioa, udalak, aisialdia, merkataritza eta lan mundua, irakaskuntza, kultura, sentsibilizazioa eta kontzientziak, familia, euskarazko produktuak, herritarrentzako eta eragileentzako laguntza eta aholkularitza...

Herriko kaleen eta auzoen izenak

Leitzako Udalak 2011. urtean onartu zuen herriko kaleen eta auzoen izendapen ofiziala, euskara batzordeak proposatuta. Kaleen izen ofizialak honakoak dira: Amazabal, Azku, Elbarren, Elgoien, Lizarraga, Manuel Lasarte, Okillin, Patxi Arrazola, San Jose, Done Mikel, Leitzalarreko errepidea, Landa behekoa eta Uharte Gotzaina. Auzoen izenak, berriz, honakoak: Arkiskil, Erasote, Erreka, Gorritzaran eta Sakulu.

Gerra aurreko euskal jaiak Leitzan

1936ko gerra baino lehen Euskal Herrian Pizkundea izeneko mugimendu bat izan zen, euskal kultura eta euskara suspertzeko ahalegina eta gogoia biltzen zuena. Ahalegin ho-

rrren barnean Euskal Jaiak izeneko ekitaldiak antolatu ziren Euskal Herriko zenbait herrian, eta Leitza izan zen horietako bat. Gurean, hain zuzen ere, 1927. urtean egin zen Euskal Jaia, Euskeraren Adiskideak elkarteak antolatuta eta bultzatuta. Abuztuaren egin ziren, pesta hirugarrenean (13an), eta programaren arabera, bertan izan eta hitza hartu zuten Euskal Herriko orduko euskalgintzako ordezkari ezagun eta nagusietako batzuk: Euskal Herriaren-Alde elkarteko zuzendari Gregorio Mugika eta Intzako Damaso, besteak beste. Abuztuaren 14an Euskaltzaindiaren Euskal-eguna egin zen, eta egitarauaren barnean R.M. Azkueren, Orixeren eta Intzako Damasoren hitzaldi bana zeuden programatuta. Bi egunetan, hitzaldiez gainera, dantzari txikiak, olerkiak irakurtzea, euskal musika eta bestelakoak ere egin ziren.

Leitzako bertsogintza

Leitzako bertsogintzak XX. mendearen erdialdean nolabaiteko etena izan zuen arren, gaur egun berriz ere nolabaiteko sasoia berreskuratu du. Eta garai batean ere izan ziren bertsolariak eta izan zen bertsozaletasuna Leitza. Garai hartako erreferentziak dira, esate baterako, Joxe Manuel Arribillaga Bordaberri, Manuel Lasarte edo Batixte Perurena. Eta horiek guztiak baino askoz lehenagokoak dira Lazaro Bengoetxea (1867-1931), garai hartan oso bertsolari ezaguna eta estimatua herrian, edo Kristobal Beriñes (1880-1953), jendearen hain gustuko izaten ziren bertso zirikatzaile eta umoretsu horietatik ale ederrak eta aski famatuak utzi zizkiguna. Garai batean bertso-paper asko egiten zen —gaur egun ez daukan indarra bazuen orduan horrek—, bertsozaleek horietako asko buruz ikasi eta errepikatzen zituzten, eta baita tarteka bat-bateko bertsoak bota ere. Bertsozale sutsu horietakoak Leitzako etxe askotan izan dira: Sorobarrenen, Bordaberrin, Gorritiengan, Musunen, Sasan, Boxikanbordan, Luisenbordan, Lesakolorretan, Martikonean, Barunen, eta abarretan. Horietako batzuek bertsotan txukun aski egiten zuten.

Arrosnabarrak

Arrosnabarrak bertsokanturako kantamodu bat ziren. Artazuriketan abesten ziren eta, molde ezagunetan oinarrituz, abeslariak puska berriak txertatzen zituzten, gure herriko amorio kontuak azaltzeko. Patziku Perurenak azaltzen duenez, formatu hau oso aspaldikoa da, eta seguruenik gaur eguneko bertsolaritzaren aitzindaria da. Hortaz, ondoren etorriko zen bertso osoa bat-batean asmatzea. Artazuriketako kanta sorta oso ongi gorde du Leitzak, batez ere emakumeen ahotik, eta ez dira herri asko izanen altxor zahar hau Leitzak bezain ongi mantendu dutenak.



KULTUR
RA
ETA KIROLA



Ezpatadantza

Ezpatadantza oso dantza berezia eta estimatua da Leitzan, eta horren seinale da urtero abuztuaren 11n, Leitzako pestetan, dantza horren erakustaldiak herritarren artean duen harrera eta eragiten duen zirrara. Durangaldean oso aspaldi dantzaten zen —Humboldt-en aipamena 1801. urtekoa da, baina badaude lehenagoko aipamenak ere—, eta handik etorri zen, hain zuzen ere, Leitzara. Errepublikara garaian dantzari dantza hura estilizatu omen zen, eta bertsio finago hori da Leitzara etorri zena eta gorde dena. Gainerako toki gehienetan jatorrizko formara itzuli ziren. Dantzatzeko eran zenbait ñabardura aldatu bada ere, egiturari, musikari eta dantzaren atalei eutsi egin zaie urteen joan-etorrian. Patxi Ripa iruindarrak erakutsi zien leitzarrei ezpatadantza dantzaten, 1932. urte aldera, eta ikurrina erabili zuten lehendabiziko dantzari haiek.



Ingurutxoa

Leitzako Ingurutxoaren modukoak edo tankerakoak herri askotan gorde dira, izen ezberdinarekin bada ere. Leitzakoaren aipamen zehatza dugu, esate baterako, 1926an Aita Olazaranez egindako liburu bateko deskribaketan. Izena, itxuraz, dantzarien sokak egiten duen inguruari zor zaio. Leitzako aldaerak, nolahi ere, lortu du nolabaiteko ospea, eta hala erakusten du Aita Olazaranen aipamen honek: «Leitzako Ingurutxoa Euskalerrian neska-mutillan artean egiten diran dantza guzietan goratsuena dala esan ditezke iru gauza auei begiratuz: Eresien zenbatasun ta edertasunari, dantzaldi-berezitasunari ta luzetasunari. Iru zati ditu ta iruak eztute elkarrekin ikustekorik: Lenengoa: Sokadantza. Bigarrena: Inguru aundi edo laudantza. Irugarrena: Inguru txiki edo ingurutxo». Ezpatadantza den gisan, ingurutxoa ere dantza estimatua eta maitatua da herrian eta urteko zenbait ospakizun nagusitan (pestetan, San Juan bezperan edo bestelako ospakizunetan) dantzaten da herriko plazan. Garai batean, bestalde, ingurutxoa zen gazteek elkarrengana hurbiltzeko eskura izan eta erabiltzen zuten aukera.

Aurrera dantza taldea

Aurrera dantza taldea, izen horrekin, 1947an sortu zen. Andres Irisarri —Leitzan maisu zegoen—, Jose Urdanpilleta —Tolosako albaitea— eta Jose Astibia botikaria izan ziren, besteak beste, sortzaileak. Aipatutako horiek, Leitzan dantzari asko zirela ikusita, talde ofiziala bihurtzea erabaki zuten. Taldea sortutakoan erakustun bat behar eta Luis Erbiti jarri zen lan horretan. Ingurutxoa eta ezpatadantza dantzaten zituzten, herrian eta baita kanpoan ere, eta gerora dantza berriak ikasten eta eskaintzen hasi ziren. Irakasle asko pasa dira dantza taldetik, eta herriko dantzazaletasunak mantendu du gaur arte taldea. Errepertorio zabala osatzea lortu du Aurrera dantza taldeak, eta Leitzako pestetan egiten duten saioa izaten da erakustaldi nagusia.

Leitzako idazleak

Leitzako herria zinez emankorra da literatura eta idazkuntzaren eremuan, eta bereziki euskal literaturaren alorrean. Idazle asko eta onak eman ditu, eta horrela erakusten dute Leitzako liburutegiak herriko idazleen lanetarako gordeta dauzkan apal bete-beteek. Zerrenda luzea egin liteke bertako idazleen izenekin, eta idazle horiek guztiek jorratu eta landu dituzten gaien edo generoen zerrenda ere oso zabala da: eleberria, olerkia, saiakera, bertsolaritza, historia, kronika historikoak, etnografia, hiztegi-gintza, filologia, dibulgazio zientifikoa, ekologia, biologia... Euskal literaturan ezagun askoak diren idazleak ditugu tartean —Patziku Perurena, Iñaki Zabaleta, Patxi Zabaleta, Manuel Lasarte—, baina zerbait idatzi eta argitaratu duten leitzarren edo Leitzan bizi direnen zerrenda hori baino askoz luzeagoa da: Alex Mugika, Antonio Lizartza, Antton Erkizia, Artuto Eloseggi, Dabid Anaut, Gotzone Sestorain, Iñaki Perurena, Iñigo Ibarra, Ione Gorostazu, Jabier Moreno, Jabier Tirapu, Miel Mari Eloseggi, Mikel Illarregi, Mikel Olano, Luis Fagoaga, Pa-kita Zabaleta, Pello Urkiola...

Leitzako liburutegia

1969an Amazabal Patronatoak Leitzako liburutegia ireki zuen, eta haren arduraria izan zen, 1982an Nafar Gobernuak Liburutegi Sarean sartu zen arte. Hitzarmen bat sinatu zuten Udalarekin eta lokala eta mantemimendua udalaren esku gelditu ziren; beste ardurak, berriz, Gobernuaren esku. Hasiara hartan Lesakeneko herrian egon zen, eta hortxe jarraitu zuen urte askoan. Gero bertako nagusiak arrandegi bat ireki zuen eta liburutegia atzealdera pasa zen. Aurrerago, berriz, 1993-1994 aldera, Udalak haur-eskolako zati bat egokitu zuen eta ondoren, 1996an, obra bat egin, mobiliario guztia berritu eta orain daukan itxura hartu zuen.

Leitzako musika taldeak

Dantzarako eta kirolerako zaletasun handia dago Leitzan, ez dago zalantzarik, baina musika-zaletasuna ere ez da nolana hiko. Zaletasun horrek elkartu izan ditu leitzarrak behin baino gehiagotan eta hortik sortu dira zerrenda honetan agertzen diren taldeak, musika estilo batekoak nahiz besteak: rock taldeen artean Potrotako miñe, Inor, Laukitik ihes, Berpiztu, Derrame Vaginal; La Banda de René eta Artadi txarangak; Sagu eta Sator bikotea; Jaiki eta Asketa abesbatzak; Leitzako txistulariak. Horiez gain, hainbat leitzar dira Euskal Herriko musika taldeetan ari izan direnak edo ari direnak, talde ezagun nahiz hain ezagun ez direnetan: Etzakit, Maixa eta Itziar, Incansables, Esne beltza, Desafio, Trikidantz, Garraxi, Ezpelur, Habeas Corpus, Tximeleta, Damba, Katez... Eta, jakina, Aralar Musika Eskolatik ateratzen diren musikariak eta bestela ere musika tresnaren bat jotzen ikasi duten hainbat eta hainbat haur eta gazte ditugu herrian, tarteka beren trebezia erakusten digutenak.



Leitzako artistak

Leitzak kulturgile eta artista ugari eman izan du. Prudentzio Arrieta Astibia, Sorollaren ikasle izana, Urtoko Bernardinoren senidea, aski ezagun bihurtu zen. Gaur egun ere badira zenbait artista leitzar: Jabier Moreno, Luis Fagoaga, Mikel Lizarraga, Kontxi Arrizurieta, Jose Antonio Vergara, Santi Larraz, Maria Pilar Aramendi... esate baterako. Batzuek utzi dute Leitzan bere arrastoa, herriko plazako lurreko armarrria Mikel Lizarragarena da, esate baterako edo denak ezagun ditugun Fagoagaren herriko marrazkiak.

Pilota Leitzan

Herri pilotazalea da Leitzan, eta zaletasun horren froga da aspalditik dugula partida sonatuen berri, 1759an Iturengo Armarak eta Uitziko Baztarririk jokatu zutena, konparaziora. Tradizio handiko pilota-plaza omen zen hemengoa. Beste garai bateko aztarna dugu, halaber, Etxexuriaren pareko botarria, goante jokoan erabiltzen zena. Pilota izan zen, hain zuzen ere, aisiarako denboran leitzarren kirol nagusia denbora askoan, orain gauzak aldatu badira ere. Aizkora-eta ere baziren, baina egunerokoan pilota zen nagusi, eta bi pilota-leku zeuden garai batean: pilota-plaza, ezker paretarik gabeko hori, eta Uharteneko trinketea. Azken hori hasieran ordaindu behar izaten zen, eta ez gutxi gainera.

Herritik inora atera gabe pilotari trebe asko egon zen herrian, nahiz eta izen eta ospe handiena profesionalak eskuratu duten beti. Lehendabiziko profesionala Mariano Retegi izan zen, 50eko hamarkadan. Ondoren, Migel Zestau, erremontista ezaguna, baina esku-pilotan hasi zena. Juan Mari Bengoetxea dugu, Bengoetxea IIIa, zerrenda honetan hurrengoa, bi aldiz buruz buruko txapelduna esku pilotan, 1978an eta 1979an. Binakako bat ere irabazi zuen. Haren anaia Migel, Bengoetxea IV.a, bi aldiz izan zen binakako txapelduna.

Esku pilotaz gain palak ere eman zituen profesionalak, Miguel Zabaleta eta Jose Inazio Intxaurren esaterako. Eta saskiak ere eman ditu fruituak: Eusebio Zestau (Zestau II.a), Isaak Zestau (Zestau III.a), Iñaki Agirre, Ruben Astibia...

Baina eskuzkoa da, ziurrenik, gaur egun oihartzun handiena lortzen duena, eta hor ere baditugu lehen aipatuez gainera profesional izatera iritsitako beste batzuk: Jose Antonio Olaetxea (Olaetxea IIIa), Iñaki Iparragirre, Aitor Bengoetxea, Ibai Bengoetxea, esate baterako. Bereziki aipatu behar, jakina, buruz buruko txapeldun izan direlako, Abel Barriola eta Oinatz Bengoetxea. Abelek 2001ean lortu zuen lau eta Erdiko txapela eta 2002an buruz burukoa. Oinatzek, berriz, buruz burukoa 2008an, bien arteko final sonatu hartan, bi leitzar mailarik gorenean elkartu zireneko partida hartan. Ondoren Jaunarena gehitu da profesionalen taldera. Ezin ahaztu, nolana ere, bertan hainbeste pilotari profesional atera baldin bada, herrian beti izan den zaletasunari eta zaletasun hori landu duen pilota eskolari esker izan dela neurri handi batean.



Ezkila jotzea

Garai batean, orain ez bezala, ezkila joaz hainbat konturen berri ematen zen herrian. Esate baterako, eta Mikel Olanoren *Aio, Leitze* Leitzako hiztegian jasotzen denez, "eguzkiaren argia gorabehera, arratsaldeko zortziak inguru izaten zen amezkille. Gazteak (batik bat neskak) etxera erretiratzeko deia zen". Amezkillez gainera, beste ezkil-jotze batzuk ere izaten ziren. Hauek dira aipatutako *Aio, Leitze* liburuan Mikel Olanok jaso dituenak: abemari ezkille, agoniezkille (hil ezkila), argiezkille (argi ezkila, goiz ezkila), aur ezkille (haurra hiltzen zenean jotzen zena), errezkille (su ezkila), gauzezkillle (gau ezkila), goizezkille (goiz ezkila, argi ezkila) eta suezkille (su ezkila, erre ezkila). Pertsona bat —edo gehiago— behar izaten zen ezkil-soinu horiek denak jotzeko. Orain automatikoki jotzen du eta orduari buruzko berria besterik ez du ematen.

Liñaputzua

Lihoa beratzen edukitzen zen tokia izaten zen liñaputzua. Lihoa ehunik edo ohialak egiteko erabiltzen zen landarea da. Landare hori alorretan ereiten zen eta jaso; eta ondoren sekulako lanketa eginda, ehun bihurtu, gero besteak beste alkandorak, oheko zuritasunak nahiz kutxa eta leihoetako apaingarriak egiteko. Liñaputzu, Liñeputzu edo liñuputzu esaten zitzaion Leitzan. Izenak ongi aski erakusten duen moduan, putzua edo putzu modukoa izaten zen. Garai batean liñaputzuak baserri gehienetan izaten omen ziren. Mikel Olanok bere hiztegian dioenez, "Usadio haren omenez, 2000. urtearen inguruan Liñuputzu izeneko elkarteak sortu zen Leitzan, ehoziariak, puntua eta antzeko eskulanak egitera biltzen den emakume-talde batek osatua. Lihoaren lantzeari gerra aurrean utzi zitzaion".

Ilbeltzaren 4ko zintzarri jotzea

Ilbeltzaren 4an gauerdian inguruan jendea plazan bildu eta zintzarri banarekin herrian barrera ibiltzen da. Soinua ateratzeko jendeak zintzarriak eramaten ditu, eta baita joaleak, kulunkak, karrakak, kanpalinak, eta kaxkabelak ere. Gaur egun biharamuneko kabalkadaren oharpen gisako ekitaldi-ekintza modura jotzen da, alegia, hiru errege magoak etorri aurreko iragarpena. Baina ohitura hau kabalkadak eta opariak egiten eta banatzen hasi baino askoz ere lehenagokoa da. Jada neguko garai hotz eta ilunenak igaroak izaki, abenduaren 21ean neguko solstizioa pasa eta eguna luzatzen hasia baitago ilbeltzeko tenore honetan, "lurrari esnatzen laguntzeko", alegia, udaberrirako prestatzen hasteko, jotzen omen zituzten zintzarriak eta joaleak herritarrek. Adituen ustez gure herriko ohitura honek zuzeneko lotura du Iturengo eta Zubietako joaldunenarekin, esanahiari dagokionez, tenore bertsukoak baitira.

OSPAKIZUNAK
OHI-
TURAK



Pesta ttikiak

Garai batean, Francoren dikatura garaian, ihauteak debekatutako ospakizunak izan ziren, garaiko itxikeria moralaren eta ideologikoaren ondorioz. Leitzarrek ez zioten ospakizunari uko egin nahi, ordea, eta festa horiek nolabait gordetzeko modua izan zen "pesta ttikiak" izena erabiltzea.

Atsaurea

Baliteke lehenagokoa izatea ere, baina gauza ziurra da XX. mende hasieratik 50. hamarkadara arte gutxienez Leitzako ihauteetan atsaureak ateratzen zirela. 1917. urteko Leitzako Udalaren Ordenantza baten arabera, ihauteetan atsaurea nor zen ezagutzen baldin bazen ere (aurpegia trapuz estalita izaten baitzuten), ezin zen hura nor zen esan. Alegia, ezagutua ez izatea oso garrantzitsua zen garai hartan. Azkeneko urteotan berriz berreskuratu da Atsaureak ateratzeko ohitura, eta Astearte iñotean ikus daitezke herriko kaleetan barna.

Auzolana

Auzolana aspaldiko usadioa da gurean, oso errotua egon dena, eta garai bateko baserriko eta nekazaritza arloko bizimoduari lotua. Gizartea asko aldatu bada ere, gaur egun auzolanak indarrean jarraitzen du, eta Leitzako Udalak ere araututa dauka. Bi dira auzolanaren bitartez ordaintzen diren jarduerak edo eskubideak: egur lotea eskuratzea eta larreak erabiltzea. Auzolanean egin beharreko lanak askotarikoak dira: mendiko lanak (hesiak, bideak garbitzea edota egitea, minelarak banatzea, belar txarrak kentzea...), pestetako hesiak jarri eta kentzea, errekek garbitzea...

Sorginak

Garai batean sorginak erretzea ohiko kontua izan zen, eta Leitzan ere bada horren arrastorik. Hain zuzen ere, sorgin baten erreketaren lehendabiziko berria 1334. urtekoa da. Arnalda izeneko herritar bat erre zuten, Iزابako Sancho de Aurraberatsa pozoinduta hiltzeagatik. Bestelako berriak ere utzi dizkigu sorgin ehiza horrek. Esate baterako, 1575. urtean Gorteen ordezkari batek sorginkeriaren inguruko ikerketa bat egin zuen Larrauen, eta 44 pertsonen izenak agertzen dira bertan. Horietako 12 Leitzakoak ziren. Ikerketa horren barnean egindako lehendabiziko gauzetako bat Uli mendiko kobazulo bat aztertzea izan zen, sorginak han elkartzen zirela esaten baitzuten. Nolanahi ere, ikerketak



ez zuen emaitzarik izan, eta azkenean Gorteen ordezkari horrek ez zien akusatuei idatzizko testigantzarik ere eskatu.

Orantzaro

Orantzaro da Leitzan Olentzerori deitzeko erabiltzen den hitza. Leitzako kultur taldeak ohitura eta izen hori ikertu ditu, baita ondorio batzuk atera ere: orantza legamia da, eta aroa garaia; alegia, orantzaroa ospakizunetarako eta otorduetarako garaia izan liteke. Gaur egun Orantzaro etxe askotako balkoietan ikusten den gisan, garai batean ere gizaki itxurako panpinak jartzen ziren, nahiz emakume nahiz gizon figuran, eta urtero saiitzen ziren itxura aldatzen. Ez zen, egun den bezala, ikazkina, bestelako hamaika itxuratan agertzen baitzen: jostuna, baserritarra, aizkolaria, ehiztaria, emakumea haurtxoarekin... Orantzaro egunean, bestalde, etxeko atarietan sua egiteko ohitura izaten zen, saltoka eta jostetan ibiltzeko.

Leitza eta Goizueta arteko muga

Aspaldiko kontakizun batek dioenez, bi herrien arteko muga non finkatu behar zen erabakitzeko, bi herrietatik emakume bana bidaltzea erabaki zuten, eta topo eginen zuten toki hartan ezarriko zen muga. Leitzarra agudo aski abiatu zen, baina goizuetarra, nonbait, bere burua apaintzen hasi eta denbora dezente eman zuen horretan. Elkartu zirenerako leitzarra ia-ia Goizuetako kaskoan zen, eta horregatik ailegatzen omen da Leitzako lurra Goizuetako herrigunetik kilometro bat ingurura.

Karrape irratia

Karrape Irratia 1993.urtean sortu zen, Leitzako euskara batzordeak eta oro har Leitzako euskalgintzak eta euskaltzaleek bultzatuta. Udal irratia da sorreratik beretik, eta bi helburu nagusi izan ditu beti: herrian euskara normalizatzea batetik, eta herritarrei zerbitzu bat eskaintzea, bertako informazioa emanez eta beste hainbat jakingarri eta gai landuz eta hedatuz. Euskaraz egin du beti emisio osoa Karrape Irratiak, eta 90. hamarkadan izan zuen eten labur bat alde batera utzita, 20 urtetik gorako ibilbidea osatu du dagoeneko. Ibilbide horretan zenbait esatari ari izan dira irratian, eta makina bat kolaboratzaile.



HERRI
BAT
AUZOLA-
NEAN



Marmari aldizkaria

Marmari aldizkaria 2000. urtean sortu zuten Leitzako Marmari euskara taldeak eta Leitzako Udaleko euskara zerbitzuak. Gazteen euskara taldeak lau bat urte iraun zuen, eta denbora tarte horretan elkarrekin kudeatu zuten bi eragileek aldizkaria. Taldea desagertu zenetik euskara zerbitzuak hartu zuen aldizkaria osatzeko eta argitaratzeko ardura. Marmari 28 orrialdeko euskara hutsezko aldizkaria da, eta euskara, kultura, Leiza nahiz Leitzako herrigintza lantzen ditu. Urtean bi zenbaki argitaratzen zituen 2010 arte, gaur egun urtean behin kaleratzen da. 2000-2014 urte bitartean, guztira, 26 zenbaki argitaratu ditu.

Pestetako egitaraua eta euskara

Pestetako egitaraua gaztelaniaz argitaratzen zen hasieran, euskararen zipriztinak han eta hemen ikusitezkeen arren, sinaduretan edo izen nahiz ezizenetan esate baterako. Ahoz nagusiki euskaraz egiten zuen herri batek gaztelaniaz egiten zuen idatziz. Hori denborekin aldatu eginen zen, eta gaur egun Plazaola aldizkaria euskaraz argitaratzen da osorik, egitarauaren gaztelaniazko bertsioa izan ezik. Publizitate ere ia % 100ean euskaraz agertzen da (2014. urtean % 96, 2 euskaraz, gainerakoa ele bietan). Urte dezente behar izan zen, nolana ere, pestetako egitarauan euskara agertzen hasteko. Euskarazko lehendabiziko idatzia 1972. urtean agertu zen, "Aurreraren asmoak" izenburuarekin. 1976. urtetik aurrera, Franco hil ondoren hain zuzen ere, bi hizkuntzetan agertzen hasi zen (agurra eta egitaraua ele bietan, eta barneko idatziak, berriz, batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz). Euskarazko lehendabiziko iragarkiak 1978. urtean agertu ziren, eta Amazabal burdindegia, Nekane harategia eta Egur-lan zurgindegia izan ziren. 80. hamarkadako lehendabiziko urte haietan ere gehienak gaztelaniazkoak ziren oraindik. 86. urtean, berriz, aldaketa handia gertatu zen, eta ordurako iragarki asko euskarazkoak ziren. Gerora egitarauarekin batera Plazaola aldizkaria argitaratzen hasiko zen, eta hasieratik euskarazko portzentaje handi batekin, gaurko aldizkarira iritsi arte.

Asketa abesbatza

Asketa gazte abesbatza J.J. Aizkorbe apezak sortu zuen 1982an. Bera izan zen lehendabiziko zuzendaria eta beste zuzendari eta laguntzaile batzuk etorriko ziren atzetik, Maialen Irigoien eta J. Bautista Irazoki esate baterako. 30 gazte inguru biltzen zituen kantuan aritu zen urteetan, gazteak denak eta gehienak neskak, eta Euskal Herriko hainbat tokitan kantatzeaz gainera, Katalunia, Polonia eta Parisera ere joan zen bere kantuen errepertorioarekin, gehienbat euskal kantuz osatua.

Jeiki abesbatza

Jaiki abesbatza 1974an sortu zen, aurretik desagertutako "Agrupación Coral de Leiza"-ren ondorio bezala. Hasieran berrogeita bost abeslari ziren, eta uneren batean berrogeita hamabi izatera ere iritsi ziren. Hamar urte iraun zuen Jeikiren ibilbide "ofizialak", eta tartean hainbat emanaldi egin eta zenbait lehiaketatan ere parte hartu zuen. 18 urte inguruko etenaren ondoren, XXI. mendearen hasiera aldera ekin zion berriz lanari, eta gaur egun ere kantuan aritzen da. Errepertorio zabala dauka, euskal kantu ugari barne.

Maxurrenea


1975. urtean Jose Perurenak eta Victoria Larratek Amazabal Patronatuari utzi zioten Maxurrenea etxea erresidentzia gisa erabil zedin, edo hezkuntzara nahiz gizartera bideratutako bestelako ekimenetarako izateko baldintzarekin. Amazabal Patronatuaren eskuetan Maxurreneak hainbat funtzio bete izan ditu: liburutegi publikoa izan zen, ezinduentzat zentroa, ikasleentzat erresidentzia eta Lanbide Heziketako egoitza, bestek beste.

1978an Amazabal elkarteak Nafarroako Gobernuari eman zion Maxurrenea, haiek jasotako baldintzekin: Leitzako herritarren mesederako, hezkuntzarako eta erabilera kulturalerako izatea. Hasieran Nafarroako Hezkuntza Departamenduaren esku geratu zen Maxurrenea, baina 1998. urtean ikasle egoitza bertan behera gelditu zen, eta Leitzako Udalak Maxurrenea kultur etxea izan zedin lehenengo pausoak eman zituen. Beste aukera batzuk ere aztertu zituen, hala nola zahar etxea edo museoa izatea. Urte askoan etxea hutsik egon zen, baina udalak eskatu arren gobernuak ez zion eman, bere beharretarako zuela eta.

2002. urtean Nafarroako Gobernuak Maxurrenea Espainiako Gobernuari alokatu zion kuarterel bat egiteko, udalak berak eta herritar gehienek horren aurka zeudela oso argi adierazi zuten arren. *Maxurrenea herrintzat* aldarrikapenak indar handia hartu zuen, baina Leitzako herritarrak ados ez egon arren eta jabeak agindutako baldintzak bete ez arren, 2003ko abuztuan kuarterel bilakatu zen Maxurrenea. 2013. urtean, herritarren borondateak bestelakoa izaten jarraitzen bazuen ere, eta Nafarroako Legebiltzarrak berak Maxurrenearen erabilera sozial, hezkuntzazko edo kulturalaren aldeko erabakia onartu zuen arren, Nafarroako Gobernuak berriro egin zion kontratua Guardia Zibilari beste 10 urterako.

Atekabeltz

Atekabeltz Herrigunea auzolanaren emaitza argia da. Hainbat urtez koartela izan zena berreskuratu zenean eraikina gaztetxe bihurtu zen hasieran, eta herrigune ondoren. 2005. urtetik aurrera egin den auzolanak herriko eragileentzat eta herriko bizitza kultu-





ral eta sozialarentzat espazio bat eskaini du, bai eragileen antolaketarako eta lanerako, bai eskaintza kultural, ludiko eta artistikoak aurrera eramateko. Herriak bere bizitasunari eusteko eta herrigintzak bere garapenerako behar duen espazioari aukera bat eman dio eraikin berriak, eta herritarrentzako gune bihurtu da. Herriguneko partaide diren guztiek osatutako batzarrak gidatzen du herrigunea bera, eta batzorde batek kudeatzen du urte osoan zehar.

Nor Jaungoikoa bezala

Leitzako banderak "Nor Jaungoikoa bezala" esaldia dugu. Banderako testu hori, hain zuzen ere, Mikel izenaren esanahia da. Euskaltzaindiaren *Euskal izendegia* liburuak honela dio hitzez hitz, Mikel izenaren azalpenean: "Hebreerako Mikha'el ("nor jaunkoa bezala?") izena Michael bihurtu zen grezierako eta latineko itzulpenetan". Done Mikel da, hain zuzen ere, Leitzako patroia, eta horregatik agertzen da haren izenaren erreferentzia herriko banderak.

Leitzako Udalaren osaera

Leitzako Udala lau urtetik behin hautatzen da, eta 11 zinegotzik osatzen dute osoko bilkura. Gobernu batzorderik ez dauka, baina udala eta herria kudeatzeko lana hainbat batzordetan banatzen da. Batzordeak Udala osatzen duten talde guztietako kideek osatzen dituzte. 2011ko hauteskundeak Bilduk irabazi zituen eta udaleko 11 zinegotzietatik 9 eskuratu zituen. UPNk eta Derecha Navarra y Españolak zinegotzi bana lortu zuten. Azkeneko hauteskundeetan ondoren Oier Eizmendi hautatu zuten alkate, eta hark kargua utzi ondoren Arantxa Iparragirrek hartu zuen kargua, Leitzako alkate izan den lehendabiziko emakumea. Bi horiez gain, Leitzako Udala hauteskunde bidez hautatzen denetik alkate izandakoak honakoak dira: Juan Oronoz, Gabriel Zabaleta, Jesus Maria Zabaleta, Mikel Illarregi, Tomas Azpirotz, Patxi Saenz eta Jabier Zabalo. 2003ko hauteskundeetan legez kanpo utzitako Larrain taldeak lortu zuen boto kopururik handiena, Marian Zestau zerrendaburu zuela, baina legez kanpo gonda ez zuen alkatetza eskuratzetik izan.

Leitzako Udala

Leitzak eta Aresok udal bakarra osatu zuten denbora askoan eta oso aspalditik. Bi herri ziren arren, ikuspegi administratibotik elkarrekin agertu dira historian zehar, 1192. urteko foruan Leitzako lehendabiziko aipamena agertzen denetik. 1770. urtean gertatu zen bi herrien arteko banaketa administratiboa, Leitzak Erregeri hala eskatuta, eta geroztik Leitzako herriak udal propioa izan du. Bi herrien arteko bereizketa orduan gertatu zen, beraz, baina lehenagotik zetorren banatu nahia, XVII. eta XVIII. mendeetan zehar bana-



tzeko egindako eskaerek erakusten dutenez. Carlos III. Erregeak onartu zuen bereizketa, eta honela zioen agindua: "separación de la Villa de Leiza y de la de Areso, en todo lo Político, Económico y Jurisdiccional y en todo lo demás conducente a su gobierno, eximiéndola enteramente y autorizándola para que haga por sí sola, en lo sucesivo, el nombramiento de Alcalde y Almirante de su Territorio y a posesionarse de estos oficios a las personas en quienes recayesen, sin otro Título que el de su elección".

Udaletxea

Garai batean udalaren batzarrak plazan egiten ziren. Elizaren ondoan dagoen plaza aipatzen da agiri zaharretan, 1574an esate baterako. Alegia, batzarrak eliz atarian egiten omen ziren. Lehendik ere bazegoen ziur asko udal egoitza gisa erabiltzen zen eraikinen bat, baina XVIII. mendean, 1737. urtean hain zuzen ere, herriko kontzejuak baimena eskatu zuen udaletxe berria eraikitzeko. Ignacio de Lekuona oiartzuarrari eman zitzaion enkargua, "Marquillos" izenez ezagutzen zuten etxea zegoen tokian eraikina egiteko. Ustez 1741erako egin behar zen, baina lanak atzeratu egin ziren eta 1745ean bukatu zuten udaletxea. Kartzela ere bazuen udaletxe hark. 1915. urtean, berriz, Udalak udaletxea berritzea erabaki zuen, eta handitzea, besteak beste eskola bertan jarrita eta baita irakasleentzako etxebizitzak ere. Inguruko etxeetako nagusiak kexatu egin ziren eraikin berriak kalte eginen zielako. Diputazioan kexa aurkeztu zuten batzuek, eraikin berriak argitasuna eta plazarako bista kenduko zielako, baina ez zuten deus lortu.

Leitzako bandera eta armarría

Leitzako bandera gorria da, eta erdian herriko armarría dauka. Blasoiaaren azpiko aldean euskarazko esaldi bat dago: "Bi gauza ikusten dira gure mendiyetan Gurutze sinismenaren agerkaya ta aritza gure indartasunarena". Armarríaren gainean "Leiza" izena agertzen da, eta horren azpian "Nor Jaungoikoa bezala". Andoni Esparza Leitzako idazkari izandakoak uste du Leitzako bandera XX. mendearen lehen zatian eginen zela, 1912. eta 1936. urteen artean hain zuzen ere. Leitzako armarríarren osagaiak, berriz, honakoak: hondo hori batean haritza (sustraiak agerian), otsoa ibilian (haritzaren enborrean gurutzatua), inguru gorri bat, eta San Andresen zortzi gurutze.





PERTSONAIK ETA HERRI- TARRAK



Jose Bizente Huarte San Martin, Txinako Wuhuko Gotzaina

Jose Bizente Huarte jesuita leizarra gotzain egin zuten Txinako Wuhu hirian. 1877an jaioa, apirilaren 9an. Familia aberatseko semea zen, "Zortziko" esaten ziotenaren semea hain zuzen ere. Zortzikonea du izena gaur Oialde taberna dagoen etxe horrek. Filosofia eta teologia irakasle ere izan zen Colegio Máximo de Oña delakoan. Txinara 1916ko azaroaren 5ean iritsi eta han misio lanetan aritu zen Nanking, Tchaoshien, Taipingfu eta inguruko herrietan. 1922ko irailaren 24an Wuhuko gotzain egin zuten. Teologiari eta filosofiari emana bizitu omen zen Txinan, eta kristautasuna hango legeetara egokitzeko ahalegina egin omen zuen, Mateo Ricci italiar jesuitaren teoriak jarraituta. 1925. urtean omenaldia egin zioten Leitzan eta 1935eko abuztuaren 23an hil zen.

Antonio Lizartza

1891an jaio eta 1974an hil zen. Nafarroako erreketean burua izan zen, eta 1936ko altxamendua prestatzeko lanetan aritu zen buru-belarri. 1934. urtean Mussolinirekin berarekin elkartu zen armak eskatzeko. Fusilatua izateko arriskuan egon zen behin baino gehiagotan, baina bere etsai izandako Manuel Irujori eta Jesús Monzoni esker ez zuten fusilatu, berak idatzitako *Memorias de la Conspiración* liburuan atortu zuenez. 1945eko ekainaren 5ean Leitzako Udalak herriko seme kuttun izendatu zuen Antonio Lizartza. 2013ko martxoaren 6an, berriz, izendapen hori kentzea onartu zuen Udalaren osoko bilkurak.

Manuel Lasarte

Manuel Lasarte, 1927an Leitzako Franki baserrian jaioa, XX. mendeko bertsolari garrantzitsuenetakoa izan zen. Leitzan egin zituen bere bizitzako lehendabiziko 12 urteak, eta ondoren Aian eta Orion biziko zen. Bizitzak dezente zigortutakoa izan zen Manuel, eta 2012. urtean hil zen, Aretxabaletan. Errementaria izan zen ogibidez, eta bertsolaria bo-kazioz, 17 urterekin hasita. 40 urte eman zituen plazaz plaza, garaiko bertsolari onenekin batera, eta bereziki Uztapiderekin saio asko egindakoa zen. Adituen ustez puntu oso aberatsekoa, neurrian zuzena, kantaera gozokoa eta errima zorrotzekoa. Bertsolaria ez ezik idazlea ere izan zen eta zenbait liburu idatzi zituen: Bertso mordoxka (1970), Gordean neuzkanak (1975), Lazkao Txiki gogoan (1994), Beranduko lanak (1993), Enbor zararren ezpalak (1995), Kantuaren ordañez (1997), Uztapide gogoan (1999), Plaza-gizonak (2005)...

Inazio Baleztena

Iruñekoa zen bera, baina familiako lotura estua zeukan Leitzarekin. Oso pertsonaia ezaguna izan zen Inazio Baleztena Nafarroan. Premin de Iruña eta Tiburcio de Okabio goitizena ere erabili zituen. Abokatua, politikari karlista, idazlea eta historialaria, besteak beste. Iruñeko zinegotzia izan zen, foru diputatua eta 1936ko gerran erreketeen buru. Oso eskuindarra, oso elizkoia, baina aldi berean oso euskaltzalea. Hego Euskal Herriko lau herrialdeak elkartuko zituen Estatutuaren aldekoa zen, eta Eusko Ikaskuntzako Bartzorde Iraunkorrek kidea izan zen. Ez zen geldirik egotekoa eta gauza asko egin zituen, honakoak besteak beste: "Uno de enero, dos de febrero..." letra ezagunaren egilea da, Olentzeroren doinua hartuta; Iruñeko Riau-riaua asmatu zuen; Muthiko Alaiak peña sortu zuen; baita Iruñeko udal dantza taldea ere... Euskaltzalea bai, baina abertzaletasunaren aurka gogor egin zuen pertsonaia izan zen Inazio Baleztena. 1887an jaio eta 1972an hil zen.

Ebarixto Elduaien txistularia

Ebarixto Elduaien txistularia 1866. urtean jaio zen, Malkorra baserrian. Harengandik jaso zen Leitzako ingurutxo lehendabiziko aldiz, hari hartu baitzion Aita Olazaran sonatuak. Orixek berak ere aipatu zuen behin baino gehiagotan, eta bereziki azpimarratu zuen tuntuari bikaina zela. Zoritzarreko heriotza izan zuen, Plazaolako trenak harrapatuta hil baitzen.

Petra Azpiroz, Lizarrako lehendabiziko ikastolako irakaslea

Petra Azpiroz leitzarria izan zen Lizarrako ikastolako lehendabiziko irakaslea, 1932. urtean. 1916an jaioa, 2001ean hil zen Iruñean. Etxeberrikoa zen Petra eta 17 urte besterik ez zituen Lizarrako ikastolako irakasle izateko Eusko Ikaskuntzatik deitu ziotenean, Gipuzkoan irakasle izateko oposaketa prestatzen ari zela. Ikastola 1932an abiatu zen, aurrekaririk eta eskarmenturik gabe egin beharreko ibilbidean. Nahi baino laburragoa izan zen ibilbidea, ordea, 1936ko altxamendu faxistak hegoak ebaki baitzizkion hegan hasi nahi zuen egitasmo hari. Ikastola itxi zuten, liburu guztiak kalean erre, eta Petra lanik gabe utzi zuten. "Persona indeseable" eta "non grata" izendapena ere eman zioten, eta irakasle lanean jarraitzea galarazi zioten, bai alor publikoan bai pribatuan. 21 urte zituen orduan, eta ez zuen aurrerantzean Petrak irakasle lanik inoiz eginen.





Patxi Arrazola

1959ko otsailaren 1ean ireki zituen ateak Sarrio lantegiak, bi urteko obren ondoren. Patxi Arrazola zestoarra, orduan Berrobiko Uranga lantegiko gerente zena, izan zen lantegiaren sortzaile eta lehen urteetako kudeatzailea. Arrazola euskaltzalea zen, eta langile euskaldunen bila ibili omen zen "herriz herri, baserriz baserri, zahar eta gazte, eskolatu ta eskolatu-gabe, euskalduna izatea aski eta Leitzako Papeleran bazuten lana ta irabazbidea" (Principe de Viana, 1971), eta inguruko herri askotako langileak etorri ziren hona lanera. Eskualdeari garapen ekonomikoaz gain garapen soziala ere eskaini nahi izan zion Arrazolak. 1971n Arrazola kendu egin zuten Sarrioko zuzendaritzatik, eta hurrengo egunean hil zen, hain zuzen ere, bihotzekoak emanda.

Angel Alduntzin txistularia

1916ko uztailean jaio zen Angel Alduntzin txistularia, Lesakeneko herrian. Gero Pastaingo herrian biziko zen. Aitak, bederatzi urte zituenean, erregetarako ebanozko txistu bat oparitu zion eta harekin jo omen zuen bizitza osoan. Leitzan bezala, kanpoan ere ibili zen txistua jotzen, baita dantzariekin han eta hemen ere. Ezpatadantza, ordea, ez zuen inoiz jo, karlista familia eta girokoa izaki. Inazio Baleztenaren Muthiko Alaiakeko lehendabiziko txistularia izan omen zen, eta garaiko agintari nagusi batzuen aurrean jotakoa da (Gil Robles, Erregea, Javier de Borbon Parma...). Hain maite zuen txistua, gerran ibili zenean ere berekin eramaten zuela toki guztietara. Gerrara, nolana ere, erreketek gisa joan zen, baina nahikoa zapuztuta etorri zen, politikarekin eta armekin deus gehiago jakin nahi ez zuela. Txistulari gehiago baziren Leitzan, baina berak hartu zion txanda, nolabait esateko, Pastain txistulariari. 52 urtez segidan jo zuen txistua Leitzako Udaletxeko Karrapean igande ilunabarrero, zazpietatik bederatzietara, hiru urtetan bakarrik huts eginda. Herriko ekitaldi eta ospakizunetan ohikoa zen bere jarduna, baita artazuritze garaian ere etxe eta baserri askotan. 1981eko otsailaren 17an hil zen.

GEHIAGO JAKITEKO

Aldizkari honetan hainbat kontu aipatu ditugu, Leitzari buruz jakin daitekeenaren zatitxo bat denon eskura jartzeko. Irakurlearen jakin-mina neurri txiki batean asetzea eta neurri handi batean piztea da gure helburua. Nahi izanez gero ikasten jarraitzeko aukera batzuk ekarriko ditugu hona, informazio-iturri batzuk aipatuz. Iturri zehatzak eman baino lehen, ordea, bi aukera orokor nagusi aipatuko ditugu: bata, Leitzako liburutegia. Han bada nahikoa liburu, aldizkari, prentsa-bilduma eta bestelako, Leitzari buruzko ezagutza berritzeko. Leitzari buruz idatzitako hainbat artikulua, liburu eta aipamenez gain, leitzarrek idatzitako liburu eta artikulua guztiak ere han daude, sailkatuta eta esku-eskura; eta beste aukera nagusia, jakina, Internet sarea. Irizpide pixka batekin eta bilatzaileek lagunduta, sarean ere gure herriari buruzko informazio ugari aurki daiteke, baita irudi eder askoak ere.

Horiek esanda, zehatzagoak diren iturri batzuk aipatuko ditugu, lagungarri izanen zaizkizuelakoan. Ohi den bezala, iturri hauetara joz gero, horietan bertan informazio-iturri gehiago, bibliografia zabalagoa eta ezagutzan sakontzeko bide berriak eta oparoak aurkitu daitezke.

- Plazaola aldizkaria. Interneten bertan kontsulta daiteke, kultur taldearen webgunean: www.leitzakultura.net
- Marmari aldizkaria. Zenbaki guztiak Interneten ikus eta deskarga daitezke, www.iparmank.org webgunean.
- Kultur taldearen webgunea: www.leitzakultura.net
- Leitzako Udalaren webgunea: www.leitza.net
- Plazaola Partzuergoaren aldizkariak eta webgunea: www.plazaola.org
- Euskara Mankomunitatearen webgunea: www.iparmank.org
- Auñamendi entziklopedia: www.euskomedia.org/aunamendi
- Ttipi-ttapa aldizkaria: www.ttipi.net
- *Leitzako Errege-Erreginak*. Patziku Perurenak idatzitako liburuak.
- *Aio, Leitze* Mikel Olanok idatzitako Leitzako hiztegia.
- *Areso eta Leitzako hizkerak* Mikel Olanok idatzitako liburuak.
- Nafarroako Estatistika Institutua
- Udalaren artxibategia
- Elizaren artxibategia
- Liburutegiko bibliografia: liburuak, entziklopediak, urtekariak eta prentsa bildumak, aldizkariak...



